

15/07/2009

Lurrun bidez ibiltzen diren trenen inguruko ikastaroa martxan da

Trenaren Euskal Museoak Lurrun Trakziorako XIV. Hastapen Ikastaroa martxan jarri du aurten ere.

Atzo hasi ziren saioak eta igandera arte emango dituzte. Urtean behin ematen dute ikastaroa eta gehienez zortzi ikaslek parte hartu dezakete. Aurten ikastaroa egiten ari diren ikasleak Euskal Herrikoak, Kataluniakoak eta Espainiakoak (Madril eta Andaluzia) dira. Saio teorikoak eta praktikoak egingo dituzte.

EuskoTrenek kudeatzen duen Trenaren Euskal Museoa da espezialitate honetako ikastaroak ematen dituen erakunde bakarra inguruetako lurraldeetan. Ikastaroko arduradunen esanetan, Asturiaseko Tren Museoko (Espainia), Rio Tintoko (Huelva, Espainia) Tren Turistikoko eta Argandako (Madril, Espainia) eta Douroko (Portugal) Tren Turistikoetako gidariek museoak Azpeitian dituen instalazioetan burutu dute beraien prestakuntza.

Asteburuko ordutegia

Lurrun trenei buruzko ikastaroa igandera bitartean izango denez, asteburuan Trenaren Euskal Museoko treneko bidaien ordutegia aldatu egin dute. Lurrun trenak egiten dituen Azpeititik Lasara arteko bidaiak larunbatean 12:00etan, 13:00etan, 17:00etan eta 18:00etan izango dira; igandean, berriz, 12:00etan eta 13:00etan.

n. uranga